

«Berezko estilo tradizionala» jorratuko dute 'Dantzaldi ibiltaria'-n

Aiko taldearen ekinbideak dantzazaleak bilduko ditu ostegunero Donostian, Viktoria Eugenia antzokian

Erredakzioa Donostia

Aiko dantza taldeak *Dantzaldi ibiltaria* ekitaldia aurkeztu du, «dantza egiteko berezko estilo tradizionala zabaltzeko eta dantzarako esparruak berreskuratu eta sortzeko asmoz». Urritik ekainera bitarte, dantzazaleak ostegun arratsaldeetan Donostian bilduko ditu proiektu horrek, Viktoria Eugenia antzokian, dantza mota ugari landuz gozatzeko. 2013-2014ko ikasturtean, gainera, beste zortzi hiri eta herritara ere iritsiko da ekitaldia: Azkainera (Lapurdi), Iruñera, eta Bilbo, Markina, Galdakao, Sopela, Gernika eta Durangora (Bizkaia). Horretaz gainera, *Dantzazaleak* Iñaki Andresen argazki erakusketa ikus daiteke egunotan Donostiako Udal Liburutegian, Aikoren lanari buruzkoa.

'Egunsentiaren kantuak' ikuskizuna eskainiko dute bi bider Parisen

Pier Pol Berzaitz, Estitxu Pinatxo, Magali Zubillaga, Erramun Martikorena eta Joxean Goikoetxea ariko dira

Erredakzioa Baiona

Pier Pol Berzaitz, Estitxu Pinatxo, Magali Zubillaga, Erramun Martikorena eta Joxean Goikoetxea kantari eta musikariek *Egunsentiaren kantuak* ikuskizuna emango dute asteburuan Parisen, Jemmapes aretoan egingo den Euskal Azokako ekitaldien barruan. Larunbatean eta igandearen euskal jaki eta produktuen erakusketa egingo da gune horretan, Amalur eta Lurlan elkarteek antolatuta, eta azoka girotuko dute beren bi kantaldiak alpatu bost kantari eta musikariek. Aurrenekoa larunbatean egingo dute, irailaren 14an, 20:00etan, eta bigarrena igandearen, 18:30ean.

Punk-rock doinu gazteak Arangoitiko gaineratik


Ibai Osinaga, Julen Abaurrea eta Iker Ariz irunberriarrek osatzen duten taldeak lehen diskoa kaleratu du

Iker Tubia Iruñea

«Musika bizitzan, musika zainetan». Hala dio Altxatu taldearen kantuak batek, eta kantatutakoa serio hartu dutela dirudi. Ibai Osinaga, Julen Abaurrea eta Iker Arizek *Altxatu* estreinako diskoa kaleratu dute, Gor diskoetxearekin. Iruberrin (Nafarroa) sortutako talde gazte horrek punk eta rock doinuak bildu ditu lehen lanean, 15 eta 14 urte baizik ez dituzten arren, gogotsu hasi dute musika ibilbidea.

Hamar kantuak osatzen dute diskoa, gehienak berajek sortutakoak. Punk-rock musikan ohi den bezala, gai politikoa eta sozialak landu dituzte gitarra, baxu eta bateriaren doinuekin. Ez da harritzekoa, besteak beste, *The Ramones*, *The Clash* eta *Hertzainak* taldeen eragina antzematea. Ibai Osinaga taldeko gitarrista eta abeslariak azaldu duenez, inguruko taldeak ongi ezagutzen dituzte laigar daiteke haien musikan: «Euskal rock erradikala deitzen den horretako talde guztiak gogoko ditugu, eta hori nabaritzen da».

Hiru urte dira Altxatu taldea sortu zutela. Hasieran «jolas baten gisa» hasi zen hirukotea, baina, oholiza gainera igotzearekin batera, serioago hartu zuten musikaren afera. Javier Etxeberria Vendetta taldeko musikaria ezagutu ondoren, lehenbiziko diskoa harekin grabatzea erabaki zuten Altxatuko musikariek. Halaxe



Iker Ariz, Ibai Osinaga eta Julen Abaurrea dira Altxatu taldeko kideak. BERRIA

egin zuten, eta Etxeberriaren etxean grabatu zuten lehenbiziko aldiz. Emaizta txukuna iruditu zitzaion Gor diskoetxeari, beraz, Iruberriko hirukotearen diskoa bere zigilupean kaleratzea erabaki du.

Emaiztarekin «oso kontent» daudela aitortu du Abaurreak,



Euskal rock erradikala deitzen den horretako taldeak gogoko ditugula nabaritzen da»

IBAI OSINAGA
Altxatu taldeko gitarrista eta abeslaria

diskoa «ongi grabaturik» dagoelako. Aurkezpena atzo egin zuten, baina joan den asteburuan disko hamar kantuak jo zituzten Otsagabian. Hurrengo egunetan diskoa Zangozan eta Agoitzen aurkeztuko dute. Ostiralean Zangozan eta hilaren 27an Agoitzen.

Taldeak euskaraz kantatzen

du, baina diskoan erdara erabili dute bi kantutan: gaztelania *No debes de luchar* kantuan, eta ingelesez *The Future is Unwritten* kantuan. Azken horretan, Joe Strummerren testuari doinua jarri diote gazte irunberriarrek. Ez da hori beraiek idatzi ez dituzten hitz bakarrak. Alde batetik, Josetxo Goia-Arribek biziagunak Iruberrigoratzeko sortu zuen kantua bere egin du Altxatuk. Bestetik, *The Specials* talde ingelesaren *You're Wondering Now* kantua euskaratu egin dute. Emaizta: *Galdezka arizara* kantua.

Gainontzeko abestiak euskaraz dira, eta Euskal Herriaren inpendentziatz, krisiaz, arrazakeriaz eta borrokatzeko grinaz mintzo dira, besteak beste. Kantu horiek guztiak grabatzeaz gainera, ikus-entzunezkoekin ere animatu da Altxatu. Izan ere, *Musika zainetan* kantuarekin bideoklip bat kaleratu dute. Aurkezpena eginda, diskoa taula gainean defendatzeko gogoz dira irunberriarrek.

Ehun herrialdetako baino gehiagoko liburuak Frankfurt

Aurtengo gonbidatu nagusia Brasil denez, herrialde horretako 90 idazle inguru izango dira Alemaniako hirian

Agentziak Frankfurt

Ehun herrialdetako baino gehiagoko argitaletxeen liburuak izango dira Frankfurteko Liburu Azokan aurtengo ekitaldian, urriaren 8tik aurrera, antolatzaileek iragarri dutenez. Munduko liburu azokarik handiena eta garrantzitsuenak da Frankfurtekoa; 250.000 edo 300.000 inguru bisitari izaten ditu urtero. Brasil da aurtengo herrialde gonbidatua. Herrialde horretako 90 idazle inguru izango dira Frankfurten, eta Brasilekin zerikusi zuzena duten 260 liburu aurkeztuko dira; horietatik 177 alemanera itzulitako Brasilgo liburuak dira, horretarako sortu diren diru laguntzen babesari esker sortuak eta plazartuak gehienak. Orotara bostehun ekitalditik gora izango dira azokako egitarauaren barruan.

Rotterdamgo Kunsthalleko lapurreten epaiketari berrekin diote

Oraindik argitzeko dago egia den akusatuetako baten amak margolanak erre egin zituela, frogak desagerrarazi nahian

Agentziak Bukarest

Atzo berrekin zioten Rotterdamgo (Herbehereak) Kunsthall museoko margolanen lapurreten epaiketari, Bukaresten, eta oraindik argitzeko dago ebatsitako margolanak suntsituta dauden edo ez, akusatuek margolan horiek itzultzeko proposatu baitute, ordainean Herbehereetan epai ditzaten. Prozesua duela hilabete orer zuten, auzitegiak eskari hori azter zezan. Pablo Picasso, Henri Matisse eta Claude Monet obrak daude lapurtutakoan artean, eta akusatuetako baten amak adierazi zuen erre egin zituela, semearen aurkako frogak suntsitu nahiak horretara bultzatuta.

Bederatzi egunez edukiontzia baten barnean egonen da Azkona

Performancea Lyongo Biurtekoan ari da egiten artista iruindarra, Des Pentes galerian; nahi duenak ikus dezake

I. Tubia Iruñea

Berrero ere itxialdi bat egingen du Abel Azkona artista iruindarrak. Oraingoan edukiontzia batean sartu da. Atzo hasita, bederatzi eguneko itxialdia egingen du Lyongo Des Pentes galerian, Frantzian, hiri hartako arte biurtekoaren

barruan. Ikusleentzat irekita egonen den areto batean izanen dute edukiontzia.

Askatasuna ukatuz bere burua aurkitzeko proiektua izanen dela azaldu du Azkonak. Esan duenez, fetu egoerara itzuliko da, eta bertan igaroko dituen bederatzi egunek haurdunaldiak irauten duen bederatzi hilabeteak irudikatuko dute. Bere mugak aztertu nahi dituela esan du, klaustrofobia barne.

Bere asmoa «berriz sortzea» dela aitortu du. «1a 60 eguneko itxialdia egin berri dut, eta nire niaren zati bat ezabatu dut. Orain

elikatu eta osatu egingen naiz edukiontzia baten barnean, berriz jaiozko», azaldu du. Uztailaren 5ean sei metro koadroko gela batean sartu zen, Madrilen, bertan bi hilabete eman nahian. 42. egunean ospitalera eraman behar izan zuten, kordea galduta.

Bi performance horiek *Confinement in Search of Identity* (Itxialdia, identitatearen bila) proiektuaren segida dira. Horretan, lehenik, hainbat artistarekin lau egunez itxi zen, Kolonbian, logela batean. Gero, ezagutzen ez zuen artista batekin egon zen astebeitez apartamentu batean itxia.